

# Bizitzaren jirabiran... Nondik gatoz, nor gara, nora goaz...?

## Izarren hautsa... nondik gatoz?

jatorria mitoen begiradatik

### 1 MITOAK



**ZER DIRA?** Kultura desberdinetan narrazioen bidez munduaren sorrera eta gizakiaren etorrera azaldu dituzte metaforikoki, sinbolikoki...

**ZEIN FUNTZIO BETETZEN DUTE?** Ulertezinak ziren zenbait fenomeno naturalei erantzuna ematen zioten.

**NOLAKOAK DIRA?** Ahozko tradizioetan garatu izan direnez, bertso desberdinak izan badituzte ere, zenbait ezaugarri hamankomunean ere: historio denek dituzte **trama eta pertsonalak** (jainkoak, giza itxurako pertsonaiak edo animaliak, sarritan hitz egiten dutenak eta erraz eraldatzen direnak...) Sarri, **garai zehaztugabe** batean kokatzen dira.



### 1 EUSKAL MITOLOGIA

Euskal mitologiak ere badu hainbat kondaira gai hauekiko azalpena emanez. Kondaira hauen artean, bada **Ama-Lurra** jainkosa nagusiak (**Mari**), **Ilargia**, **Eguzkia**, **eguna**, **gaua**, **eguzki-lorea** sortu zituenekoa azaltzen duen istorioa; beste hainbatek, **unibertsoa** osatzen duten elementuen gurtza (lurra, zerua, natura...) adierazten dute.

euskal mitologiaz...



**ZER DA?** Euskal mitologia sinesmen, pertsonaia mitiko eta elezaharren multzoak osatzen dute **bizitzaren arazoei** erantzuteko helburuarekin.

**ZEIN FUNTZIO BETETZEN DU?** Gure kulturaren oinarri dira eta bizitzaren misterioak eragiten duen jakin-min egonezinari erantzuten die eta bere inguruko fenomeno naturalei azalpena eta erantzun fantastikoak ematen die.

**NONDIK DATOR?** Euskal mitologia **historiaurretik datorren mitologia** da eta gure mitologiak **gizaki prehistorikoaren ikuspegia** nabarmenki adierazten digu.

**NOLAKOA DA?** Euskaldunek **unibertso osoa**, ikusten duten guztia gurtzen dute: **lurra**, **zerua**, **eguzkia**, **ilargia** eta **natura**.

## 1.go jarduera - EUSKAL PERTSONAI MITOLOGIKOAK

- Ea jarraian deskribatzen diren euskal kosmogoniako pertsonaia mitologikoak zein diren asmatzen duzun:

- AMA-LURRA
- MARI
- EGUZKI-AMANDREA
- ILARGI-AMANDREA
- ORTZI URTZI




**Jainkosa nagusia, barne bizi-indarrarekin.** Naturaren sortzailea, izaki guztien bizilekua eta babesia.




**Naturaren eta fenomeno naturalen pertsonifikazio izpirituala (Ama-Lurra?).** Pertsonaia mitologiko nagusia da, Lurrean bizi dena (leizeak).




**Jainkosa garrantzitsu bat da, Ama-Lurra jainkosaren alaba. Argia eta beroa ematen ditu, lurreko bizitza bere esku dago.** Ikaragamizko boterea du lurpeko jainuen gainean, agertzen den bezain laster ezkutatzeko direnak.




**Jainkosa garrantzitsu bat da, Ama-Lurra jainkosaren alaba. Arimak argitzen ditu (hilen argi?).** Bada egun bat jainkosa honi eskainia: ostiral; sorginak eta aztiak elkartzen diren eguna.




**Hodelen gainean dagoen zerua da, non eguzkia, ilargia eta izarrak agertzen diren. Eta zerua edo zeruko argia gorpuzten duen jainkoa kosmogonian.**

## 1. EUSKAL MITOLOGIA eta ARTEA

Euskal Herriko tradizio eta artean, gizakiak ingurunearen interpretazioa eta izakiaren izatearen espresio lanak burutu dituela ikus dezakegu.

**Sorginetako Titubaren (Dagunt?)**

**Karneopla (Karnak?)**

**Sorginen Txakela (Bier?)**

**Ayako Oñateko (Ayako Oñateko?)**

**Sorgi Etxeaga (Lanatik & Karmuntua)**

**Etxela (Etxela?)**

**Guzmán Tanco Vera**  
Euskal izaki mitologikoekin  
konkilo futurista

**Nestor Basterretxea**  
Euskal Seme  
Kosmogonikoa

- 3. jarduera

- Behatu eta aztertu euskal kosmogonia eta mitologiarekin erlazionaturako ondorengo arte adierazpenak: hauen ezaugarriak, irudikapen moduak... zein sententzio eragiten dizkigute?



Eguzki Egafia eta Imanol Etxeberria - Mari



Antton Jauregi Zuria  
Mari



Patxi Xabier Lezama  
Eguzkilore



Patxi Xabier Lezama  
Ama Lurra



Eguzki Egafia eta Imanol Etxeberria - Eguzki eta Nargi




Eguzki Egafia eta Imanol Etxeberria - Gaueko

## Proposamena

### 1 ilustrazioa - euskal mitologia

"Euskal mitologia" gai duen irudia sortuko duzue, irudikapen moduekin jolastuz (ikonikotasuna, abstrakzioa, sinbolismoa), kode sinboliko propioak sortuz eta erabiliz. Ikusizko ekoizpena egiteko, aurretiazko zirriborroa eta proiektuaren plangintza burutuko dituzue. Ondoren, zuek aukeratutako ikus elementu, prozedura eta teknikez baliatuz, Euskal kosmogonia gai duela, zuen adierazpen estetikoak burutuko duzue.



Elezaharrak dioenez, Lurran iluntasuna nagusi zenean, gizakiak **Ama-Lurra**rengana erreguka zuzendu ziren mehatxatzen zuten espiritu eta numenen aurka borrokatzen laguntzeko. Ama-Lurrak erreguak entzunez, bere alaba sortu zuen, **Ilargia**. Gizakiek bere argia eskertu zuten, baina haren argia ez zen nahikoa gaizkiaren aurka borrokatzeko. Orduan, gizakiak Ama-Lurrari argi gehiago zukeen eta iluntasuna garai zezakeen zerbait eman ziezaion eskatu zion. Ama-Lurrak bere beste alaba sortu zuen, **Eguzkia**, eta era honetan **eguna** jaio zen. Harrezkero, egunez, espiritu txar batek ere ez zituen gizakiak mehatxatu.

Baina, Eguzkia Lurraren mugalean zegoen Itsasgorrietan murgiltzen zenean, **gaua** jaiotzen zen. Gaizkiak, gaua heltzean, bere gordelekutik irten eta gizakiak mehatxatzen jarraitzen zuen. Orduan, gizakiak Ama-Lurrari gauan zehar gaizkiaren aurka borrokatzeko zerbait eman ziezaien eskatu zion; Ama-Lurrak **Eguzki Lorea** sortu zuen. Gauan zehar bere bizilekuek irten ez zezaten, eta gaizkiaren aurka babesteko bere etxeetako atearen gainean Eguzki Lorea jar zezaten adierazi zion.

Harrezkeroztik Ama-Lurrak adierazitakoa jarraitu zuten gizakiek ez zuten gehiago jasan gaizkiaren mehatxurik.